

Nchmon yol Guatemalako neskak zaindu

Guatemalako neskek gure errespetu osoa merezi dute eta horregatik haien hezkuntza integralaren alde gaude.



Proyde-Proega Guatemalako PRODESSA GGKEarekin batera eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz Guatemalako San Marcos Departamentuan aurrera eramaten ari den proiektuak neska eta nerabeen haurdunaldi goiztiarra eta nesken kontrako biolentzia ekiditea du helburu, hezkuntza integralaren bitartez.

Guatemalako gizartearen ezaugarrietako bat desberdintasuna, pobrezia eta esklusioa dira, eta honek batez ere nekazal eremuetan bizi den biztanleria indigenari eragiten dio, bereziki emakumeei. Egoera honen seinaleetako bat Guatemalako neska eta nerabeetan ematen diren haurdunaldi goiztiarren indize altua da, eta bereziki biztanleria indigenaren artean. Gainera, 15 urtetik beherako haurdunaldi goiztiarrak biolentzia sexualarekin erlazioatuta egoten dira.

Haurdunaldi goiztiarren indize altuenak dituen departamentuetako bat San Marcos departamentua da. Horregatik, Guatemalako PRODESSA GGKEarekin batera aurrera eramaten ari garen proiektu hau departamentu honetan kokatzen da eta helburutzat du nesken haurdunaldi goiztiarra eta beraien kontrako biolentzia ekiditea, beti ere hezkuntzaren bitartez.

Proiektu hau San Marcos Departamentuaren Altiplanoan kokatzen diren bi udalerrietan ari gara aurrera eramaten: Concepción Tutuapa-n eta Comintancillo-n. Udalerrri hauetan biztanleria gehien bat indigena da, maya mam hain zuzen ere. Hauek gizarte zerbitzu gehienetatik bazterturik aurkitzen dira, hiriburutik urrun daudelako eta beraien lurraldean jo zuelako modu bortitz batean Guatemalak 36 urtetan zehar bizitako barne gerrak.

Proiektu honek emakumeen, batez ere neska eta nerabeen, eskubide sexual eta ugalketakoen defentsan laguntzen du, haurdunaldi goiztiarren prebentzioan lan egiten duen hezkuntza-programa baten bitartez.

Programa hau 20 eskoletan inplementatua izan da orain arte, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan. Proiektu honekin programaren irismena handitzea bilatzen da, Concepción Tutuapa eta Comintancillo udalerrietako Bigarren Hezkuntzako lehenengo hiru urteak hartuz. Izan ere, ikasmaila hauetan aurkitzen dira 13-15 urte bitarteko ikasleak, arazo honen aurrean oso zaugarriak direnak.

Horretarako, urte hauetako haurdunaldiak ekiditea bilatzen duen diseinu metodologikoa prestatzen ari gara, hezkuntza-modulu baten ekoizpen eta banaketarekin batera. Gainera, programak bere baitan jasotzen ditu hezitzaileen gaikuntza, laguntza pedagogikoa eta gurasoekiko lana, beti ere haur eta nerabeen kontrako biolentzia eta haurdunaldi goiztiarra ekiditeko helburuarekin.

Proiektu hau burutzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak 119.824 €-ko diru-laguntza eman du eta gure aldetik **Proyde-Proegari eta PRODESSAri 29.920 €-ko diru ekarpena egitea dagokie.** Proiektua bi urtetan burutuko da.